

URTUBI ELKARTEA – 50. URTEURRENA

PREGOIA

Kaixo Zumarraga!

Gaur ohore handiz emango diegu hasiera jaiei.

Eta jaiak, herri honetan, ezin ditzakegu elkarte gastronomikorik gabe ulertu.

Elkarteak gure jaien bihotz isila izan dira hamarkada askotan: bazkaria non antolatu, otordua non egin, eguna non hasi, eta sarri askotan, non amaitzeko leku kuttunak.

Lagun talde batek, duela 50 urte elkarrekin erabaki zuen zer egin... eta nola egin, hor eraiki zen gaur arte osasuntsu iritsi den gure komunitate txikia, gure Urtubi elkarte.

Elkarteak belaunaldiz-belaunaldi iritsi zaizkigun abestiak eta errezetak dira, inon idatzita ez egonagatik ere, inoiz galtzen utzi ez ditugunak.

Baina egia da ere — eta gaur esatea tokatzen da — egoera hori aldatzen ari zaigula.

Elkarte batzu inplikazio eta errelebo falta dela eta arriskuan daude horregatik, gaur Urtubiren 50 urteak

ospatzea ez da atzera harrotasunez begiratzea bakarrik, aurrera arduraz begiratzea ere bada, izan ere, elkarteek zerbait irakasten badigute, komunitatea egunero eraikitzen den zerbait dela da.

Eta Zumarragak jakingo du hori egiten!!!

Gora Zumarragako jaiak!

Gora Urtubi!

Gora Zumarraga!